

SCIENCE/NSF INTERNATIONAL SCIENCE &  
ENGINEERING VISUALIZATION CHALLENGE 2013


# Zientzia irudikatzearen erronka


Zientzia begietatik sartzea lortzen duten lanak saritzen ditu urtero *Science* aldizkariak eta NSFk antolatzen duten International Science & Engineering Visualization Challenge lehiaketak. Aurten hainbat euskarritan egindako 18 lan saritu dituzte. Argazkien eta ilustrazioen kategoriako saridunak dituzue hemen.


## 1. saria argazkietan


Koralek sortzen dituzten ur-zurrumbilo ikusezinak ikus daitezke argazki honetan. *Pocillopora damicornis* koralararen bi polipok (arrosaz) beren zilioekin eragindako ur-mugimendua ikusi ahal izateko, uretako partikulen mugimendua bideoz grabatu zuten, eta kolorea emanez irudi bakarrean jaso mugimendu guztia. Mugimendu horri esker lortzen dute polipoek elikagaiak erakartzea eta hondakinak kanporatzea.

**Arg.:** Vicente I. Fernandez, Orr H. Shapiro, Melissa S. Garren, Assaf Vardi eta Roman Stocker/MIT.









### Aipamen berezia argazkietan

Izar hauek ileak dira, *Deutzia scabra* landarearen hostoetako ileak. Hosto latzak ditu *D. scabra*; hain zuzen ere, zurgin japoniar batzuek lixa fin bezala erabiltzen dituzte. Argi polarizatuko mikroskopiaoren laguntzaz, eta kaltzio sulfatozko kristal batetik argia iragaziz (XIX. mendeko teknika), landarearen ezkutuko edertasuna erakustea lortu du argazkilariak.

**Arg.:** Stephen Francis Lowry/Steve Lowry Photography.



## 1. saria ilustrazioetan

Neurozientzietan doktorea eta arte asiarraren zale amorratua da Greg Dunn, eta bere bi pasioak elkartu ditu lan honetan. Garuneko kortexeko neuronak irudikatu ditu, urrea, aluminioa eta beste hainbat material erabiliz. Neuronak margotzeko haize zorrotaden bidez zabaldu zituen pigmentuak mihisean.

**Arg.:** Greg Dunn, Brian Edwards (Greg Dunn Design)/ Marty Saggese (SfN)/ Tracy Bale (UPenn)/ Rick Haganir (Johns Hopkins University).

